

IRAKASLEAREN AUTOEBALUAZIOA

Kontrol-zerrenda honek irakasleen jarduera berrikusteko gida bat izan nahi du, sekuentzia didaktikoaren plangintzan, abiaraztean eta ebaluazioan.

Markatu zure ustez zure jardunarekin bat datorren zutabea. Nahi izanez gero, ikaskide bati eska diezaiokezu hura osatzen laguntzeko.

Ondorioek, alderdi ahulenetan doikuntzak egiteko balio beharko dute hurrengo sekuentzia didaktikoan

I.-Sekuentziaren plangintza

| | BAI | EZ |
|---|-----|----|
| 1. Ikaskuntza-helburuak argi daude definituta. | | |
| 2. Sekuentziaren plangintzan curriculum ofizialekin bat datozen helburuak eta edukiak hautatu ditut. | | |
| 3. Proiektua sortzeko hainbat ikasgai edo jakintza-arlotako helburuak, edukiak eta ebaluazio-irizpideak integratu dira. | | |
| 4. Sekuentziak amaierako zeregin bat dauka, zentzua dauka eta helburuetara, edukietara eta ebaluazio-irizpideetara egokitzen da. | | |
| 5. Sekuentzian garatu beharreko jardueren eta ikasleen oinarrizko kompetentzien garapenaren arteko loturari eustea lortu dut. | | |
| 6. Ikasleen aniztasuna kontuan hartu dut gaitasunei, maila kognitibo, lan-erritmo eta -estilo desberdinei, trebetasunei, ikasteko estiloei eta abarri dagokienez... | | |
| 7. Zereginak planifikatu ditut, ikasle bakoitzarentzat erronka kognitibo egokia izan daitezen. | | |
| 8. Ikasleekin landu eta bateratu ditut sekuentziaren lorpenari buruzko adierazleak. | | |



II.-Jardueraren garapenari buruzko analisisa::

| | BAI | EZ |
|---|-----|----|
| 9. Saiatu naiz ezagutza berriak ikasleen aurreko esperientziekin eta haien bizi-testuinguruarekin lotzen. | | |
| 10. Loturak ezarri ditut ikasleen aurreko ezagutzen eta ezagutza berrien artean. | | |
| 11. Sekuentziaren helburuak ezagutarazi ditut. | | |
| 12. Jarraitu beharreko urrats guztiak zehaztu ditut, eta denbora-sekuentzia zehatza, koherentea eta egingarria da. | | |
| 13. Lanerako dagoen denbora kontuan hartuta ezarri ditut epeak. | | |
| 14. Azken produktua sekuentziara egokitzen dela justifikatu dut. | | |
| 15. Saioa bakoitzean, maisu-azalpenak eman beharrean, ikasleen lana modelatu dut. | | |
| 16. Ikasleei proposatutako arazoek, euren adinerako konplexutasun egokia izan dute. | | |
| 17. Informazioa bilatzeko eta haren fidagarritasuna eta egokitasuna baloratzeko eskatu diet ikasleei. | | |
| 18. Informazio-iturri desberdinetarako sarbidea eman diet. | | |
| 19. Saiatu naiz jarduerak benetako testuinguru eta egoeretara egokitzen (ohiko ikasgelatik kanpo): elkarrizketak, argazki-erreportajeak, eta abar eginez. | | |
| 20. Sekuentziako jardueraren batean eskola-komunitateko, auzoko ... beste kide batzuk parte har dezaten saiatu naiz. | | |
| 21. Proposatutako zereginetan normaltasunez txertatu eta erabili ditut tresna digitalak eta Internet. | | |



Diziplinartekoa. Lehen Hezkuntza.

| | | |
|--|--|--|
| 22. Ikasleek ikaskuntza-estrategia desberdinak erabil ditzaten (antolatzaile grafikoak, eskemak, laburpenak ...) nahikoa aukera eman ditut. | | |
| 23. Aldamio-teknikak erabili ditut ikasleei laguntzeko (ereduak, bistaratzeak, esperimentazioa, erakustaldiak, keinuak,...). | | |
| 24. Hainbat teknika erabili ditut kontzeptuak ulertzen laguntzeko (adibideak, ikus-entzunezko materiala, analogiak,...). | | |
| 25. Zereginak ulergarriak eta esanguratsuak izan daitezten, askotariko baliabide material ete teknologikoa erabili dut. | | |
| 26. Ikaskuntzari buruzko hausnarketa-prozesuak bultzatu ditut (metakognizoa), "hausnarketen egunkaria" bezalako tresnaren bitartez, esaterako. | | |
| 27. Sekuentziako zereginek egitura kooperatiboa dute. | | |
| 28. Ikasle talde heterogeneoak osatu ditut. | | |
| 29. Lantalde txikian eta handian lan egiteko elkarrekiko mendekotasuna eta erantzukizun indibiduala erraztu ditut. | | |
| 30. Interakziorako eta eztabaidarako aukerak sarri eman ditut. | | |
| 31. Zereginak banatzeko rol desberdinak eta txandakakoak bultzatu ditut. | | |
| 32. Ikasgela libre, motibatzaile eta demokratikoaren giroa sortu dut. | | |
| 33. Gatazkak konpontzeko estrategiak erabili eta proposatu dizkiet ikasleei. | | |



III. Ebaluazioa

| | BAI | EZ |
|--|-----|----|
| 34. Sekuentzian zehar nire irakaskuntza-lana hausnartu eta ebaluatu dut, eta aldaketak egin ditut (zereginetan, edukietan, metodologian...) beharrezkoa izan denean. | | |
| 35. Osorik berrikusi ditut oinarritzko ezagutzak sekuentziaren garapenean. | | |
| 36. Ikasleen ekoizpen bakoitzari erantzun bat eman diot aldizka. | | |
| 37. Prestakuntzako ebaluazio, autoebaluazio eta koebaluazio momentuak ezarri eta burutu ditut, eta jasotako feedback-aren arabera ikasleek aldaketak egin ahal izan dituzte. | | |
| 38. Zereginetan askotariko ebaluazio-tresnak erabili ditut (hausnarketan egunkaria, portafolioa, behaketa, idatzizko edo ahozko probak,...). | | |
| 39. Adostutako eta jakinarazitako kalifikazio-irizpideak erabili ditut. Proben emaitzei buruzkoak ez ezik, kompetentzien lorpenari buruzko irizpideak ere badira. | | |

[Conecta13](#) -ren Proiektuak baloratzeko galdera-sortan oinarritua



Autoebaluazioa aberatsagoa izan dadin, ikasleak honako galdera-sorta hau bete dezake irakaslea ebaluatzeko:

| | BAI | EZ |
|--|-----|----|
| 1 Zereginen garapenean inplikaturik sentitu naiz. | | |
| 2. Uneoro jakin dut zer espero zuten niregandik. | | |
| 3. Behar izan dudanean, parte hartu ahal izan dut. | | |
| 4. Proposatutako zereginak produktiboak zirela ohartu naiz. | | |
| 5. Sortutako tentsioak eta gatazka konpontzen lagundu digu irakasleak. | | |
| 6. Aurrera egiteko eta ikasteko gai sentitu naiz. | | |
| 7. Jarduerak askotarikoak izan dira, eta batzuk, berriak. | | |
| 8. Gelan emandako azalpenak ulertu ditut. | | |
| 9. Entzun nautela eta kontuan hartu nautela sentitu dut. | | |
| 10. Aurretik jakin dut nola eta nok ebaluatuko ninduen. | | |
| 11. Nire ikasteko moduari buruz hausnartzen lagundu didate. | | |
| 12. Nire aukeretan konfiantza izaten lagundu didate. | | |

